

Lan-eskaintzen erregistroa 2019an

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAITZA KOPURUA


2019an Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 14.953koa izan da, 2018an baino 987 gehiago. Datu horiek ikusita, eboluzioa positibo dela esan dezakegu, urtez urteko saldoa positiboa baita; badirudi ekonomia zertxobait susper-tzen ari dela.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparaturaz, 2019an 2.159 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 5.979 Gipuzkoan eta 6.815 Bizkaian. Lan-eskaintzen %45,6 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, %40 Gipuzkoan eta %14,4a Araban.

Aurreko urtearekin alderatuz, lurralde guztiek bilakaera positiboa izan dute. Gipuzkoan hazi dira gehien kontratuak, %9,7, ondoren Bizkaia dago, %6,4ko hazkundearekin. Araba izan da hazkunde txikiena izan duen lurraldea, %2,4 hazi baitira kontratuak.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



• LAN-ESKAITZAKO LANBIDEA


Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. Zerbitzu sektoreko lanbide-profilerako erregistratutako lan-eskaintzak (3.018 guztira) eta industriako langile kualifikatuen lanbide-profilerako erregistratutakoak (2.616) dira pisu haundiena dutenak (%20,2 eta %17,5, hurrenez-hurren). Zientzia teknikarien, laguntzarako teknikarien eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 2.372, 2.252 eta 2.092 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu den profila zuzendariena izan da (87 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen atzetik (159 lan-eskaintza).

Urte arteko saldoari erreparaturaz, balio erlatiboetan, lehen sektoreko eskaintzak dira gehien hazi direnak (%32,5eko hazkundea, 39 eskaintza gehiago). Balio absolutuetan, aldiz, hazkunde haundiena ez-kualifikatuen profileko eskaintzak izan dute; 348 eskaintza gehiago izan dira (%20ko hazkundea). Azpimarratzekoa da industriako eskaintzak izan direla behera egin duten bakarrak 2019an (122 eskaintza gutxiago, %4,5eko beherakada).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen %12k kontratu mugagabea eskaini dute; %87,4k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko %0,6k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 1.789 izan dira, 44 gehiago aurreko urtearekin alderatuz, %2,5eko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 952 igo dira: guztira 13.076 eskaintza izan dira. Kopuru erlatiboetan hazkundea %7,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019an 88 izan dira, aurreko urtean baino 9 gutxiago (%9,3ko jaitsiera).

Kontratuen kalitatea azertzeak ere garrantzia du. Aldi baterako kontratuen kopurua oso handia da, eta, gainera, urte honetan, 2018an ez bezala, kontratu mugatuak erritmo handiagoan hazi dira, eta horrek etorkizuna nolabaiteko ezkortasunez ikustea dakar.



• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA - DENBORA


2019an erregistratutako lan-eskaintzen %72,2ak (10.800 eskaintzak) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen %15,9k (2.378) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen %11,1k, 1.358k, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; %2,3ko eta %0,4ko pisua dute, hurrenez hurren.

Urte arteko eboluzioari dagokionez, hazi diren eskaintza bakarrak 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-denbora eskatzen dutenak izan dira, %13,ko hazkundera (1.303 eskaintza gehiago). 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak, aldiz, berdin mantendu dira (65 eskaintza 2018 eta 2019an).

Murrizketa handiena, bai balore absolu-

tu zein erlatiboetan, 1-3 urte eskatzen dituztenak jasan dute (197 eskaintza gutxiago, %12,7ko jaitsiera). Badirudi txikiagoa dela, orokorrean, enplegu bat lortzeko beharrezko esperientzia-denbora, eta horrek gazteei egiten die mesede, teoriarik, zailtasun gutxiago dituzte lan bat lortzeko.

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatu dute 2019an, aurreko urtean baino hilabete gutxiago.



• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehenago, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintza guztien %17ak zehazten du datu hori (14.953 eskaintzetatik 2.549k). 2.549 eskaintza horietatik, 1.931 (%75,8) lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 618ak lanaldi partziala eskaini dute.

Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 56 gutxiago izan dira aurreko urtearekin alderatuz, hau da, %2,8 jaitsi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 111 gutxiago izan dira; murrizketa %15,2koa izan da.

Lan-eskaintzen erregistroa 2019an

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen %1,5 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 14.953 eskaintzetatik 222 soilik. Aurreko urtean 290 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen %84,7k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 14.953 eskaintzetatik 2.292k soilik zehaztu dute.

2.292 eskaintza horietatik, 1.029k LHko prestakuntza maila eskatu dute (%44,9k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 697 eskaintza (%29,1). Ondoren, gutxieneko ikasketak eskatzen dituztenak daude 436 eskaintzekin (%19). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 159 eskaintzekin, eta %6,9ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 2.292 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago 2019an lan-eskaintza gehiagotan zehaztu zela prestakuntza maila (2.292 eskaintza 2019an; 2.191 eskaintza 2018an), eta hauen pisua handiagoa izan zela eskaintza guztien artean (%15,3koa aurten iazko %14an aldean). Urte arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan ezik; hauen kasuan eskaintza 29tan jaitsi da (% 4,2ko murrizketa). Batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore erlatiboetan, %16,9 hazi baitira (23 eskaintza gehiago); balio absolutuetan, aldiz, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira bilakaera onena eduki dutenak (71 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduera manufaktura-industria eta merkataritza dira, eskaintzen %14,9ko, eta %14,2ko pisuarekin, hurrenez hurren (2.232 eta 2.213 lan-eskaintza 14.953 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko urteari erreparatuz gero, bost jarduerak soilik murriztu dituzte eskaintzak, eta orohar modu apalean; murrizketa handiena eraikuntzan eman da 36 eskaintza gutxiagorekin (-%3). Eboluzio positiboa izan dutenen artean, administrazio publikoa eta administrazio jarduerak dira balio absolutuetan bilakaera onena eduki dutenak; 244 eta 128 eskaintza gehiago, %24,3 eta %10,8ko hazkundeak, hurrenez-hurren. Balore erlatiboetan, kontratu kopuru esanguratsu bat dutenen artean, informazio eta komunikazioko jarduerak dira eboluzio onena izan dutenak (%28,3ko hazkundea, 68 eskaintza gehiago).

Eskaintzaren jarduera

